

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

RESINA 2021 PROIEKTUA

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2021

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☒ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

CUNCIAL S.A. 1973. urtean finkatu zen Bastidan (Araba), eta etxerako irtenbideak fabrikatzen espezializatu da. 2015. urtetik, erretxina birziklatuzko esekitoki bat fabrikatzeko lerroa dauka martxan. Ekoizpen-lerro horrek 30.000 unitate ekoitz ditzake, gehienez ere, urtero.

“**RESINA 2021**” deritzon proiektu honi lotutako inbertsioaren helburua ekoizpen-ahalmena handitzea da: esekitokiaren ekoizpena 30.000 aletik 60.000 alera bikoiztea ahalbidetuko luke, eta salmenta handitzea nahiz beste merkatu batzuetara esportatzeko aukera sortuko luke.

5.- Inbertsio totala: 410.000,00 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 146.061,20 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

CUNCIAL S.A.

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

- INDESA, Enplegu-zentroa, Oion

- INDESA, Enplegu-zentro berezia, Vitoria-Gasteiz
- BIDEZAIN, S.L., Bastida
- RAUL BARRIO METAL-ARROZGINTZA, Leza
- LEONCIO CALVO – Bastida
- BASTIDAKO UDALA – Bastida

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Bastida, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

CUNCIAL S.A. dugu aipaturiko artikularen estatuko ekoizle bakarra, eta, zalantzarik gabe, enpresa berritzailea da. Proiektuak badakar fabrikazio-kostuak optimizatzea, sinergiak sortzea ekoizpen-lerroan, eta enpresari produktuen esportazioa ahalbidetzea.

Produktu jasangarria da (erretxina-esekitokia), % 100 birziklatutako plastikoz egindakoa eta, hortaz, bizitza berria ematen die erabilitako plastikoei. Gaur egun, horrelako artikulak puripurian daude, oso jasangarriak direlako, “bigarren bizitzako” artikulak baitira, hondakinak birziklatzen dituztenak. Horrez gain, CUNCIAL S.A. barneko Iraunkortasun Planean murgilduta dago, enpresaren jardura, produktuak, *packaging*-a eta abar ebaluatzen dituela, ahalik eta gehien optimizatu eta enpresa jasangarria izateko egin daitezkeen aldaketa guztiak egin nahian. Horrela, 2020an, plastikozko ontzien 5 tona gutxiago erabili ditu produktuetan, eta enpresaren ekoizpen-lerroetan erabilitako plastikoaren % 73 birziklatua da (2018an baino % 56 gehiago).

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

CUNCIAL, S.A. enpresaren ekoizpen-instalazio guztiak Bastidan daude, eta bertan, 20 langilek egiten dute lan, kontratu mugagabez. Udalerriko industria-enpresa bakarra da. Inbertsio-proiektu honek ekoizpen-ahalmena handitzen laguntzen du Bastidan, bai eta enplegu mugagabea eskualdean sortzen ere, enpresa eta lehendik dagoen enplegua udalerrian sendotzen.